

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

IRUNGO UDALA

Iragarkia

Tokiko Gobernu Batzarrak 2017ko uztailaren 27ko bilkuran 2017 ekitaldian Laguntza Bereziak emateko oinarri berriak onartu zituen.

Erabaki horretan xedatutakoa bete asmoz, argitara ematen dira irizpide horiek.

Irun, 2017ko abuztuaren 1a.—Alkatea, e.o. Gizarte Ongizateko A.O.T. (5665)

LAGUNTZA BEREZIAK EMATEA, 2017

OINARRI ARAUTZAILEAK

1. Xedea.

Oinarri hauen xedea da Lehen Mailako Arretako aurrekontu programaren barruko laguntza bereziak emateko deialdia arautzea.

2. Laguntza berezien izaera, helburua eta ezaugarriak.

2.1. Laguntzen izaera eta laguntzak emateko araubidea.

Laguntza berezi hauek diru laguntzak dira, eta, horrenbestez, emango badira, kreditu nahikoa eta ondorio hauetarako egokia izan beharko da.

Laguntza hauek emateko araubidea zuzenean emateko araubidea izango da, Diru laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 22.2.c) artikularekin bat. Horrenbestez, ez dira egongo norgehiagokari eta laguntzen publizitateari buruzko arauen mende, oinarri arautzaile hauen publizitatearen kalterik gabe.

2.2. Xedea.

Honako hauek lortzen laguntzea izango da laguntza hauen xedea:

1. Gizarte zerbitzuei buruzko 12/2008 Legeak finkatzen dituen helburuak; bereziki, honako hauek:

a) Pertsonen autonomia sustatzea eta mendetasun egoerek pertsonen eta familiei eragiten dizkieten beharrezan aurre hartu eta erantzutea.

b) Babesgabezia egoerek eragiten dituzten beharrezan aurre hartu eta erantzutea.

c) Bazterketa egoerei aurre hartu eta erantzutea eta pertsonen, familien eta taldeen gizartratzea sustatzea.

d) Larrialdi egoerek pertsonen eta familiei eragiten dizkieten beharrezan aurre hartu eta erantzutea.

Horretarako, «hartzaila dituztenen gizartratzea eta autonomia sustatzeko xedea izan behar dute prestazio ekonomikoek, eta lagungarri izan behar zaizkie gizartratzearen prozesuan, edo haien mendetasun edo babesgabetasun egoerek eragindako beharrezan erantzun behar diete, aldi batez».

AYUNTAMIENTO DE IRUN

Anuncio

La Junta de Gobierno Local en sesión de 27 de julio de 2017 aprobó las nuevas bases para la concesión de ayudas especiales correspondientes al ejercicio 2017.

En cumplimiento de lo dispuesto en ese acuerdo, se hacen públicos los citados criterios.

Irun, a 1 de agosto de 2017.—El alcalde, p.d. la T.A.G. de Bienestar Social. (5665)

CONCESIÓN DE AYUDAS ESPECIALES, 2017

BASES REGULADORAS

1. Objeto.

Es objeto de las presentes bases la regulación de la concesión de ayudas especiales que se contemplan en el programa presupuestario de Atención Primaria.

2. Naturaleza, finalidad y características de las ayudas especiales.

2.1. Naturaleza y régimen de concesión.

Las ayudas especiales son prestaciones económicas de naturaleza subvencional. Su concesión está, por tanto, condicionada a la existencia de crédito suficiente y adecuado a estos efectos.

Su régimen de concesión es el de «concesión directa», de conformidad con lo establecido en el artículo 22.2.c) de la Ley 38/2003, General de Subvenciones. No se consideran sometidas, por tanto, a normas sobre concurrencia competitiva y publicidad de las ayudas, sin perjuicio de la publicidad de las presentes bases reguladoras.

2.2. Finalidad.

Tienen como finalidad el coadyuvar en la consecución de los objetivos definidos en:

1.º La Ley 12/2008, de Servicios Sociales. En especial los siguientes:

a) Promover la autonomía personal y prevenir y atender las necesidades personales y familiares derivadas de la dependencia.

b) Prevenir y atender las necesidades originadas por las situaciones de desprotección.

c) Prevenir y atender las situaciones de exclusión y promover la integración social de las personas, de las familias y de los grupos.

d) Prevenir y atender las necesidades personales y familiares originadas por las situaciones de emergencia.

Para ello, se regulan estas prestaciones económicas que «se orientarán a facilitar la integración social y la autonomía de sus preceptores, sirviéndoles de apoyo en su proceso de integración social o garantizando la cobertura, temporal de las necesidades derivadas de su situación de dependencia o desprotección».

2. Adikzioen eta droga mendekotasunen gaineko arreta integralari buruzko 1/2016 Legeak finkatzen dituen helburuak.

3. Euskal Autonomia Erkidegoko hilotzen sanitate alderdiei buruzko erregelamendua onartzen duen 202/2004 Dekretuak finkatzen dituen helburuak.

2.3. Ezaugarriak.

Laguntza hauek ohiz kanpokoak dira. Hortaz, ez dituzte ordezkatu ez osatuko beste sistema batzuen prestazioak, hala nola diru sarrerak bermatzeko sistemarenak, etxebizitza sistemarenak, mendetasun egoerek eragiten dituzten beharri-zanei erantzuteko sistemarenak, osasun sistemarenak eta hezkuntza sistemarenak.

Eskatzaileek eskubidez eskura ditzaketen beste laguntza edo prestazio ekonomiko batzuen subsidiarioak dira. Alegia, interesdunek eskubide hori erabili beharko dute, dela laguntzak eman aurretik, dela laguntzak ematearen beraren ondoriozko betebeharrak gisa laguntzak eman ondoren.

Izan ere, oro har, laguntza berezi hauek ezingo dira erabili beste babes sistema batzuen bidez (osasun, hezkuntza, enplegu sistemaren bidez) erantzun dakiekeen beharri-zanei erantzuteko.

Enbargaezinak dira, Prozedura zibilaren Legearen 606.1. artikulua araberak.

2.4. Bateragarritasuna.

Laguntza emateko ebazpenak besterik xedatzen badu izan ezik, laguntza hauek bateragarriak dira beste prestazio ekonomiko mota batzuk hartzearekin.

Laguntza berezi hauen onuradunek beste prestazio ekonomiko mota batzuk hartzen badituzte, dagozkion prestazioak ebazten direnean eta hartzen dituztenean hartutako zenbatekoak Udaleri itzultzeko betebeharrak izango dute.

Bereziki, aukera hau hartuko da kontuan: beste prestazio batzuen barruan mantentze eta etxebizitza gastuak ordaintzeko ematen diren laguntza berezien aurrerakinak (diru sarrerak bermatzeko errentarenak, gizarte larrialdietarako laguntzenak, etab.) eta prestazio hauek bateraezinak direla deklaratzeko. Deklaratu egiten bada, laguntzak emateko proposamenak eta ebazpenak berariaz zehaztuko dute.

3. Diruz lagunduko diren gastuak.

Programak eta, bereziki, dokumentu honen eranskinak aipatzen dituen helburuak lortzeko egiten diren gastuak lagunduko dira diruz.

Beharizan egoera puntual edo aldi baterakoei erantzuteko gastuak ordaintzeko erabiliko dira prestazio hauek.

Diru-laguntza hauekin aurre egin ahalko zaie ekitaldia naturalaren barruan aurreko 24 hilabeteetan sortutako gastuei.

4. Onuradunak.

Eranskinak gastu mota bakoitzari buruz zehazten duenari kalte egin gabe, eskakizun hauek betetzen dituzten pertsonak izan ahalko dira laguntza hauen onuradun:

a) Erroldatzea.

Oro har, eskaera egin aurretik eta diruz laguntzekoa den egitatearen aurretik, Irunen erroldatutako pertsonak izan ahalko dira laguntza hauen onuradun.

Salbuespen gisa, Irunen erroldatuta ez dauden baina noizean behin udalerrian bizi diren edo pasadizoan dauden pertsonak ere izan ahalko dira laguntza hauen onuradun.

b) Adina.

Adindunak edo adingabe emantzipatuak izan beharko dute onuradunek.

2.º La Ley 1/2016, de 7 de abril, de Atención Integral de Adicciones y Drogodependencias.

3.º Decreto 202/2004, de 19 de octubre, Reglamento de Sanidad Mortuoria del País vasco.

2.3. Características.

Tienen carácter excepcional. No se configuran, por tanto, con vocación sustitutoria o complementaria de las prestaciones de otros sistemas como el de garantía de ingresos, el de vivienda, el de atención a la dependencia, el sanitario o el educativo. En este sentido, su concesión tendrá carácter puntual o duración limitada a unos meses.

Tienen carácter subsidiario de otras ayudas o prestaciones de contenido económico a los que la persona solicitante pudiera tener derecho. En este sentido, las personas interesadas deberán hacer valer estos derechos, bien con carácter previo a la concesión, bien como obligación derivada de esta concesión.

Como norma general se ha de cumplir con el principio de que estas ayudas especiales no deberán cubrir las necesidades cubiertas por otros sistemas de protección (salud, educación, empleo...).

Se considerarán que tienen carácter inembargable en atención a lo dispuesto en el artículo 606 apartado 1.º de la Ley de Enjuiciamiento Civil.

2.4. Compatibilidades.

Salvo que en la resolución de concesión se especifique otra cosa, serán compatibles con la percepción de otras modalidades de prestaciones económicas.

Las personas beneficiarias de ayuda especial adquieren en estos casos la obligación de devolución al Ayuntamiento de las cantidades percibidas en el momento en que ser resuelvan y perciban las prestaciones correspondientes.

Se considerará en particular la posibilidad de declarar la incompatibilidad de las ayudas especiales en concepto de gastos de manutención y vivienda que se configuren como adelantos de otras prestaciones (RGI, AES...) con estas prestaciones. En tal caso se determinará expresamente en la propuesta y en la resolución de concesión.

3. Gastos subvencionables.

Se considera gasto subvencionable cualquiera que responda a los fines descritos para este programa y, en particular, los definidos en documento Anexo al presente.

Estas prestaciones irán dirigidas a situaciones de necesidad de carácter puntual o temporal.

Con estas ayudas se podrá hacer frente a gastos devengados dentro del ejercicio natural y en los 24 meses anteriores.

4. Personas beneficiarias.

Podrán beneficiarse de estas ayudas las personas en quienes concurren los siguientes requisitos (sin perjuicio de las especificaciones que se contemplan en el Anexo para cada tipología de gasto):

a) Empadronamiento.

Con carácter general, podrán beneficiarse de este tipo de ayudas las personas empadronadas en Irun con anterioridad a la solicitud y al hecho subvencionable.

Podrán también beneficiarse, de modo excepcional, personas que, no estando empadronadas, residan esporádicamente en el municipio de Irun o se encuentren en situación de tránsito.

b) Edad.

Ser mayor de edad o menor emancipado.

c) Egoera.

Pertsona hauek izan ahalko dira laguntza hauen onuradun:

- Mendetasun egoeran egoteko arriskuan daudenak eta egoera horretan daudenak.
- Babesgabetasun egoeran egoteko arriskuan daudenak eta egoera horretan daudenak.
- Beren bizikidetzeta unitateko kideen artean ahulezia egoeran dagoen pertsonaren bat dutenak (adingabeak, genero indarkeriaren biktima izandako emakumeak, etab.).
- Bazterketa egoeran daudenak.
- Baliabide ekonomiko nahikorik ez dutenak.
- Gizarte larrialdi batean daudenak.
- Adikzioak tratatzeko prozesu betean daudenak.

Eskatzailea laguntza hauek xedea diren zenbait kontzeptutan zehazten diren betekizunak ere bete beharko ditu.

d) Bete behar ez diren eskakizunak.

Diru laguntza hauen izaera kontuan izanik, Diru laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2. artikularekin bat, onuradunek ez dituzte bete beharko eskakizun hauek:

– Indarreko xedapenek finkatzen dituzten zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.

– Arauz xedatzen diren baldintzetan, diru laguntzak itzultzeko betebeharrak egunean izatea eta aurrez hartutako prestazio ekonomikoak justifikatzea, haiek itzultzeari kalte egin gabe.

e) Egokitasuna.

Gizarte zerbitzuei buruzko 12/2008 Legearen 25.1.b) artikularekin eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko 185/2015 Dekretuaren 9.4. artikularekin bat, oinarrizko gizarte zerbitzuetako erreferentziako profesionalak balorazio eta agiri tekniko bat egingo ditu, prestazioa programa honen helburuak lortzeko egokia dela egiaztatzeko.

Prestazioaren egokitasuna neurtzeko, parametro hauek hartuko dira kontuan:

- Gastuaren premia eta presakotasuna.
- Bizikidetzeta unitatearen baliabide ekonomiko nahikorik eza gastuak ordaintzeko.
- Laguntza puntualaren eraginkortasuna beharizan egoera konpontzen laguntzeko.
- Prestazioak emateko ekitate irizpidea. Laguntza hauek emateko aurrekontu funtsa mugatua dela-eta, baloratuko da zer-nolako egoeran dauden eskatzaileak onuradun izan daitezkeen beste pertsona batzuen aldean.
- Onuradunaren edo haren bizikidetzeta unitateko kide baten eta Irungo Udalaren arteko banakako arreta plan baten sinatzea, erreferentziako gizarte langileak baloratu beharrekoa, egoera hauetan:

- * Erroldatze soziala ematen denean.
- * Aldi baterako laguntza bereziak (ez-puntualak) ematen direnean.
- * Etxebizitza ordaintzeko laguntza bereziak ematen direnean, epe labur batean egoera berriz jazotzen bada (onuraduna etengabeki etxetik kanporatua bada).
- * Beste egoera batzuetan, teknikariak egoerak baloratu ondoren.

c) Situación.

Podrán beneficiarse de estas ayudas personas que se encuentren en alguna de estas situaciones:

- Riesgo o situación de dependencia.
- Riesgo o situación de desprotección.
- Situación de vulnerabilidad de alguno de los miembros de la unidad convivencial (menores, mujeres víctimas de violencia de género, etc.).
- Situación de exclusión.
- No disponer de medios económicos suficientes.
- Emergencia social.
- Proceso de tratamiento de adicciones.

La persona solicitante deberá cumplir los requisitos que de forma específica se contemplan para algunos de los conceptos a los que van dirigidos estas ayudas.

d) Exención de requisitos.

Teniendo en cuenta la naturaleza de estas subvenciones y conforme a lo previsto en el artículo 13.2 de la Ley 38/2003 General de Subvenciones, se exige a las personas beneficiarias de la necesidad de cumplimiento de los siguientes requisitos:

– Hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias o frente a la Seguridad Social impuestas por las disposiciones vigentes.

– Hallarse al corriente de pago de obligaciones por reintegro de subvenciones en los términos que reglamentariamente se determinen. De la misma manera, nos se considerará requisito la justificación de prestaciones económicas percibidas con anterioridad, sin perjuicio de la obligación de reintegro.

e) Requisitos de idoneidad.

De conformidad con lo establecido en el artículo 25.1.b) de la Ley 12/2008, de Servicios Sociales, y artículo 9.4 del Decreto 15/2015, por el que se aprueba el Decreto de Cartera de Servicios Sociales, la idoneidad de la prestación para hacer frente a los fines de este programa será objeto de valoración y prescripción técnica de la persona profesional de referencia de los servicios sociales de base, que así lo acredite.

La idoneidad de la prestación se medirá en función de los siguientes parámetros:

- Necesidad y urgencia del gasto.
- Insuficiencia de los recursos económicos de la unidad convivencial para hacer frente a esos gastos.
- Eficacia de la ayuda puntual para contribuir a la solución de la situación de necesidad planteada.
- Criterio de equidad en la concesión de estas prestaciones, valorándose la situación de los y las solicitantes en relación a otros u otras posibles beneficiarias, por el carácter limitado del fondo presupuestario destinado a estas ayudas.
- Suscripción por parte de la persona beneficiaria u otro miembro de su unidad de convivencia con este ayuntamiento un Plan Individualizado de Atención (PIA), a valorar por la persona trabajadora social de referencia, en las siguientes situaciones:

- * Situaciones de concesión de padrón social.
- * Ayudas especiales temporales (no puntuales).
- * En ayudas especiales destinadas al acceso de vivienda, en caso de que la situación se haya repetido en un espacio corto de tiempo (continuos desahucios).
- * Y, otras situaciones previa valoración técnica.

Laguntzak emateko edo ukatzeko, erreferentziazko gizarte langileak kontuan hartuko du banakako arreta plana sinatzea, baina plana sinatzeak edo ez sinatzeak ez du baldintzatuko laguntza ematea eta/edo mantentzea.

5. Informazioa eta eskabideak.

5.1. Informazioa.

Gizarte zerbitzuak erabiltzeko ereduarekin bat, Udaleko gizarte zerbitzuek emango dute laguntza berezien programa honi buruzko informazioa eta orientabidea.

Gainera, Udalaren webgunean argitaratuko dira oinarri hauek, www.irun.org helbidean, gardentasun atarian, baita Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN ere.

5.2. Eskabideak.

Urteko edozein unetan formalizatu ahalko dira eskaerak.

Interesdunek berriaz prestatzen den inprimakian formalizatu beharko dute eskaera, eta eskabidea Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan (San Martzial karrikako 1. zenbakian) aurkeztu, edo administrazio prozedura erkideari buruzko arauak besterik duten beste edozein prozeduraren bidez.

Eskabidearekin batera, gizarte zerbitzuetako erreferentziazko profesionalak familia unitatearen egoera sozioekonomikoa eta laguntza erabiliz ordainduko den gastua baloratzeko beharrezkotzat duen informazio eta dokumentazioa aurkeztuko da.

Ikusten bada eskatzaileak aurkezten duen dokumentazioa osatu gabe dagoela edo ez dituela betetzen bete beharreko eskakizunak, hamar egun balioduneko epea emango zaio interesdunari, akats formalak zuzentzeko edo aurkeztu beharreko dokumentuak aurkezteko, eta ohartaraziko zaio ez badu horrelakorik egiten eskaerari uko egiten diola joko dela eta eskabidea besterik gabe artxibatuko dela, indarrean dagoen araudiarekin bat.

Eskatzaileek baimena eman beharko diote Udalari, hark beharrezkotzat dituen datuak egiazta ditzan. Horrela, Udalak beharrezkoa den datu eta txosten oro eskatu ahalko die beste instituzio eta entitate publiko eta pribatu batzuei edo eskatzaileari berari.

Gastu jakin batzuk ordaintzeko laguntza bereziak ematen direnean (adibidez, hileta gastuak ordaintzeko laguntzak), horrelako eskaerak ofizios tramitatu ahalko dira, onuradun edo erabiltzaileei aurrez baimena eskatu beharrik gabe.

6. Instrukzioa eta ebazpen proposamena.

Gizarte zerbitzuetako erreferentziazko profesionalak instruituko du prozedura. Ofizios, datuak zehazteko, jakiteko eta egiaztatzeko egokiak iruditzen zaizkion jarduketak sustatuko ditu, eta, eskatzaileek laguntzak hartzeko eskakizunak betetzen dituzten egiaztatutakoan, dagokion ebazpen txosten edo proposamena formulatuko du.

Txosten hori nahitaezkoa eta ez-loteslea izango da, eta alkatetari (edo dagokion ordezkariari) helaraziko zaio, bere iritzia eman dezan.

Espedienteak instruitzerakoan arin jokatzeko eta instrukzioa ofizios bultzatzea ziurtatzeko, laguntza berezietan dagokien tramieta egin ahalko da tramitatuak izateko eskakizunak betetzen dituzten baina formalki horrela aurkeztu ez diren eskaerekin.

7. Ebazpena.

Alkatetzak (edo dagokion ordezkariak) ebatziko ditu eskaerak, proposamena ikusita.

La firma del documento PIA será un aspecto a tener en cuenta por parte de la persona trabajadora social de referencia para la concesión o denegación de estas ayudas, sin constituir una obligación a la que se condicione la concesión y/o mantención de la misma.

5. Información y solicitudes.

5.1. Información.

De conformidad con el modelo de acceso a los servicios sociales, la información y orientación hacia este programa de ayudas especiales se realizará desde los Servicios Sociales municipales.

Las presentes bases estarán asimismo disponibles para su consulta en la web municipal (www.irun.org), (Portal de transparencia) siendo objeto de publicidad en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

5.2. Solicitud y documentación.

Las solicitudes podrán formalizarse en cualquier momento del año.

Las personas interesadas deberán formalizar su solicitud, en el impreso elaborado al efecto, mediante su presentación en el registro del Servicio de Atención a la Ciudadanía - SAC (C/ San Marcial, 1) o mediante cualquier otro procedimiento admitido por las normas de procedimiento administrativo común.

Se adjuntará a la misma la información y documentación que la profesional referente de los servicios sociales entienda necesaria para valorar la situación socio-económica de la unidad familiar y el gasto al que se destina la ayuda.

Cuando se comprobara, que la documentación presentada por la persona solicitante es incompleta o no reúne los requisitos exigidos, se requerirá a la persona interesada, para que en el plazo de diez días hábiles subsane los defectos formales o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida de su petición, archivándose la solicitud sin más trámite, de acuerdo con la normativa vigente.

Las personas solicitantes deberán asimismo autorizar al Ayuntamiento para la comprobación de los datos que considere necesarios, recabando cuantos datos e informes sean necesarios a otras instituciones o entidades públicas y privadas, o a la propia persona solicitante.

Podrán tramitarse de oficio, sin previa solicitud de la persona usuario para ayudas especiales en determinados conceptos como son para pago de gastos funerarios.

6. Instrucción y propuesta de resolución.

La instrucción del procedimiento corresponderá a la profesional referente de los servicios sociales, quien promoverá de oficio cuantas actuaciones estime pertinentes para la determinación, conocimiento y comprobación de los datos y, una vez constatado el cumplimiento o no de los requisitos exigidos para la percepción de la ayuda, formulará el correspondiente informe-propuesta de resolución.

Este informe, que tendrá carácter preceptivo y no vinculante, será sometido a la consideración del Alcalde (ó Delegación correspondiente, en su caso).

En orden a asegurar la celeridad y el impulso de oficio en la instrucción de los expedientes, podrá darse trámite de ayudas especiales a aquellas solicitudes, pudiendo cumplir los requisitos para su tramitación, no se hubieran presentado formalmente como tales.

7. Resolución.

La Alcaldía (o Delegación correspondiente, en su caso), resolverá la solicitud a la vista de la propuesta realizada.

Eskaera aurkezteak ez du emango diru laguntza hartzeko eskubiderik; alegia, hautazkoa izango da laguntza hauek ematea, diru laguntza oro ematea bezala.

Laguntzak emateko ebazpenak haien zenbatekoa, ordaintzeko modua eta baldintzak finkatuko ditu.

Laguntzak emateko ebazpenak ez dira argitaratuko, laguntzen zenbatekoa dena delakoa ere, Diru laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 20.8.b) artikuluaarekin bat.

Ebazteko gehieneko epea hiru hilabetea izango da, eskaera aurkezten denetik kontatuta. Epe hori amaitzen denean ez bada ebazpenik jakinarazi, interesdunek ulertu ahal dute beraien eskaera ez dela baietsi administrazioaren isiltasunagatik.

Ebazpenak amaiera emango dio administrazio-bideari. Beraren aurka, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, hilabete epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita; edo, bestela, Donostiako Administrazioarekiko Auzietako Salaren aurrean zuzenean aurkaratu, bi hilabete epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita; hori guztia, bidezkotzat jo litekeen beste edozein errekurtsoz gainera.

8. Zenbatekoa.

Laguntzaren guztizko zenbatekoa inola ere ezingo da izan onuradunak gauzatu beharreko jardueraren kostua baino handiagoa, ez bera bakarrik ez beste administrazio publiko edo beste erakunde publiko edo pribatu batzuen diru laguntza edo laguntzak batuta.

Erreferentziatzko gehieneko zenbatekoak finkatuko dira eranskinak diruz lagunduko diren gastuen barruan aipatzen duen azalpen bakoitzerako.

Ebazpenak besterik xedatzen ez badu, zenbateko jakin bat emango da; alegia, ez da emango jardueraren kostuaren ehu-neko edo zati bat. Beraz, osorik ordainduko da laguntza; betiere, finantzatzen den zenbatekoa justifikatzen bada gutxienez.

9. Ordainketa.

Banku bidezko transferentzia baten bitartez ordainduko dira diru laguntzak, onuradunen titulartasuneko kontuetan.

Era berean, laguntzaren titularrez beste hirugarrenei ordaindu ahalko zaizkie laguntzak; betiere, titularrek baimena ematen badute.

Aurretiko ordainketak egin ahalko dira, eta gastuak gero justifikatu.

Inola ere ez da bermerik eskatuko laguntza hauek ordaintzeko.

Ordainketa presakoa dela xedatu ahalko du ebazpenak. Xedatu egiten bada, udal zerbitzuek lehentasunez bideratu beharko dute.

10. Onuradunen betebeharrak.

Betebehar hauek izango dituzte laguntza hauen onuradunek:

– Zertarako ematen den diru laguntza, horretarako soilik erabiltzea haren zenbatekoa eta laguntzak emateko ebazpenak zehazten duen moduan justifikatzea gastuak.

– Aldaketarik badago diru laguntza emateko kontuan hartzen diren zirkunstantzia pertsonal eta ekonomikoetan, hura jakinaraztea.

– Udalaren egiaztapen jardunbideei men egitea.

– Gizarte larrialdietarako laguntzak eskatzea eta tramitatzea laguntza hori betetzeko eskakizunak betetzen badituzte.

La presentación de la solicitud no otorga por sí misma el derecho a percibir la subvención, conservando esta concesión el carácter discrecional, inherente a toda subvención.

La resolución por la que se conceda la ayuda establecerá su cuantía, forma de pago y condiciones.

Las resoluciones de concesión no serán objeto de publicidad, sea cual sea su cuantía, ello de conformidad con lo establecido en el artículo 20.8.b) de la Ley General de Subvenciones.

El plazo máximo para resolver será de tres meses a contar desde la presentación de la solicitud. El vencimiento de este plazo sin haberse notificado la resolución legítima a las personas interesadas para entender desestimada la solicitud por silencio administrativo.

La resolución pondrá fin a la vía administrativa. Contra la misma podrá interponerse potestativamente recurso de reposición, previo al contencioso-administrativo, en el plazo de un mes contado desde el día siguiente a la fecha de su notificación, o bien impugnarse directamente ante el Juzgado de lo contencioso-administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses, contados desde el día siguiente a la fecha de su notificación, todo ello con independencia de cualquier otro que se estime oportuno.

8. Cuantía.

El importe total de la ayuda en ningún caso podrá ser de tal cuantía que aisladamente, o en concurrencia con subvenciones o ayudas de otras Administraciones Públicas, o de otros Entes públicos o privados, supere el coste de la actividad a desarrollar por la persona beneficiaria.

Se establecen cuantías máximas de referencia para cada uno de los conceptos de gasto subvencionable previstos en el Anexo.

Salvo que en la resolución se especifique otra cosa, la cuantía concedida se entenderá como un importe cierto, sin referencia a un porcentaje o fracción del coste de la actividad, por lo que se abonará íntegramente siempre que la justificación alcance, como mínimo, la cantidad financiada.

9. Pago.

El abono de las subvenciones se realizará mediante transferencia bancaria, a una cuenta de titularidad de la persona beneficiaria.

Podrá asimismo determinarse el pago a terceras personas diferentes a quien sea titular de la ayuda en los casos en que así lo autorice la persona titular.

Podrán establecerse pagos adelantados, pendientes de justificar.

No se exigirá en ningún caso garantías para el pago de estas ayudas.

Podrá determinarse en la resolución el carácter urgente del pago, en cuyo caso requerirá despacho preferente por parte de los servicios municipales.

10. Obligaciones de las personas beneficiarias.

Las personas beneficiarias de estas ayudas quedarán obligadas a:

– Destinar el importe de la ayuda únicamente a la finalidad para la que ha sido concedida, y justificarlo en la manera que se determine en la resolución de concesión.

– Comunicar cualquier variación en las circunstancias personales y económicas tenidas en cuenta para la concesión de la ayuda.

– Someterse a las actuaciones de comprobación municipales.

La persona beneficiaria tendrá la obligación de solicitar y tramitar AES siempre que cumpliera requisitos para la percepción de esa ayuda.

– Laguntzak emateko ebazpenak laguntza hartzeko finkatzen dituen gainerako betebeharrak edo baldintzak betetzea.

11. Gastuaren justifikazioa.

Onuradunek laguntza hauen erabilera justifikatu beharko dute, eta, horretarako, gastuen ordainagiriak aurkeztu beharko dituzte, salbu eta laguntzak emateko ebazpenak xedatzen badu ez dela beharrezkoa gastua justifikatzea, Diru laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 30.7. artikularekin bat.

Laguntza emateko ebazpenak finkatuko ditu gastua justifikatzeko modua eta epeak; betiere, laguntza eman aurretik justifikatu ez badira.

Alde horretatik, gastua justifikatuzat hartuko da, eta, horrenbestez, ez da beharrezkoa izango ezer egitea baldin eta laguntza edo hornigaiengatikoz zorrak ordaintzeko ematen badira laguntzak, eskatzaileek baimena ematen badute eta pertsona edo entitate hartzekodunari ordaintzen bazaio zuzenean.

Garraioa ordaintzeko laguntzei buruzko atalean deskribatzen den moduan justifikatuko dira laguntza horiek.

12. Atzera egitea eta uko egitea.

Noiznahi, eskaera aurkeztu izanari edo laguntza kobratzeari uko egin ahalko diote eskatzaileek, idatziz eta berariaz.

13. Ez betetzea.

Baldin eta oinarri hauek edo diru laguntzak emateko ebazpenak finkatzen duen betebeharraren bat betetzen ez bada, laguntza berrikusiko da, eta, dagokionean, emandako zenbatekoa ezeztatuko, murriztuko edo itzularaziko da.

Era berean, onuradunak hartuko ditu bere gain udal arauak ez betetzearen ondorioak.

14. Araubide juridikoa.

